

INDUSTRI PRODUKZIOAREN INDIZEA (IPI), 2007KO URTARRILA


Euskal Autonomia Erkidegoko industri jarduerak urte arteko %2,9ko hazkunde-tasa izan du 2007ko urtarrilean

Ekipamenduko ondasunen ekoizpena izan da nagusi, %7,7ko hazkundera helduz

EUSTATen datuen arabera, eta lan-egutegi homogeneousari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko industri produkzioa 2006ko hil beraren aldean %2,9 hazi da 2007ko urtarrilean.

2007ko urtarrilean, eta 2006ko abenduaren aldean, Euskal Autonomia Erkidegoko industri produkzioa %1,2 murriztu da baina estazionalitate-ondorioak zuzendu ostean.

Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko hazkunde zuzendua, hiruhilabeteka



(*) 2007ko urtarrileko urte arteko hazkunde zuzendua

Iturria: Eustat

Sektoreen arabera bilakaera

Sektoreen arabera, eta industri sektore nagusiak sailkatu ostean, 2007ko urtarrileko indizearen bilakaera hazi egin da ekipamenduen ondasunetan (%7,7) eta tarteko ondasunetan (%3,7), 2006ko urtarrilaren aldean. Energia %4,4 gutxitu da eta kontsumo-ondasunak %0,9, hauek kontsumo-ondasun iraunkorren (%-3,3) gutxitzearen ondorioz; kontsumo-ondasun ez iraunkorrak, aitzitik, %0,4 gehitu dira.

2006ko abenduaren aldean, 2007ko urtarrilean hil arteko aldaketak positiboak izan dira energiaren (%4,6) eta ekipamenduko ondasunen (%1,4) sektore nagusietan; aitzitik, 2006ko abenduaren

aldean betiere, tarteko ondasunek (%-1,4) eta kontsumo-ondasunek %3,6 behera egin dute. Kontsumo-ondasunen osagaien artean, kontsumo-ondasun iraunkorrek %5,9ko hil arteko murrizpena izan dute baina kontsumo-ondasun ez iraunkorrek %2,3 egin dute behera, aurreko urteko abenduaren aldean.

Lurralde Historikoen arabera bilakaera

Lurralde historikoen arabera, Industri Produkzioaren Indizearen urte arteko bilakaerak positiboak izan dira sektore guztietan; izan ere, Gipuzkoan %6,1 hazi da, Araban %1,6 eta Bizkaian %0,9.

Lurraldeetako hil arteko hazkunde-tasei dagokienez (2007ko urtarrilekoak, 2006ko abenduaren aldean) bilakaera ezberdinak eman dira aipatu aldian: Araban %0,6 hazi da tasa hori hil artean baina Bizkaian (%0,7) eta Gipuzkoan (%1,1) tasa horrek behera egin du.

Taula: 2007KO URTARRILA. Euskal Autonomia Erkidegoko Industri Produkzioaren Indizearen aldaketa-tasak (%)

Kontzeptua	Zuzendua		Desestazionalizatua	
	Urt07 / Urt06	At / At-1 (1)	Urt07 / Abe06	Abe06 / Aza06
Indize orokorra: Euskal AE	2,9	2,9	-1,2	3,2
Araba	1,6	1,6	0,9	2,8
Bizkaia	0,9	0,9	-1,8	3,1
Gipuzkoa	6,1	6,1	-1,6	3,5
Indizeak helburu ekonomikoka Euskal AE				
Kontsumo-ondasunak	-0,9	-0,9	-3,6	5,8
-Kontsumo-ondasun iraunkorrak	-3,3	-3,3	-5,9	5,8
-Kontsumo-ondasun ez-iraunkorrak	0,4	0,4	-2,3	5,8
Ekipo-ondasunak	7,7	7,7	1,4	1,4
Bitarteko ondasunak	3,7	3,7	-1,4	2,2
Energia	-4,4	-4,4	4,6	5,1

(1) t urteko urtarriletik azken hileraren arteko metatutako aldiaren urtetik urterako aldaketa-tasa da, t-1 urteko aldi berberaren aldean.

Iturria: Eustat

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxe:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxe:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp